



**ARANTZako UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
© 948 634 005  
☎ 948 634 192  
arantza.udala@arantza.eu  
www.arantza.eu

## **2015EKO OTSAILAREN 4KO BILERAREN AKTA**

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohiko bilera.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2015.02.04.  
**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Ander Almandoz Indacoechea jn.  
Zinegotziak:  
Koldobike Gorostiza Uriguen and  
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.  
Teodoro Pikabea Zubieta jn.  
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Mikel Leiza Etxeberria jn.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko akten onespena.
- 2.-Jose Benito Lizardi Bereau jaunak aurkeztutako idatzia.
- 3.-Candido Apecechea Lucambio jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 4.-Juan Picabea Ducaz jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 5.-Larretako mugaketari buruz.
- 6.-Biomasa erregai gisa erabiltzen duten instalazio termikoetan inbertsioak egiten dituzten toki entitateentzako diru-laguntzen 2015eko deialdia.
- 7.-Sarera isurketarik egiten ez duten energia berriztagarriak eta mikrosareak ezartzeko diru-laguntzen 2015eko deialdia.
- 8.-Mendiko lanetarako diru laguntza deialdia.
- 9.-Herri Urrats:diru laguntza eskaera.
- 10.-Hasanna Aalia asiloa ematearen aldeko adierazpena.
- 11.-Oroimenaren aldeko herrien koordinakundearen mozioa.
- 12.-Bertizko Partzuergo Turistikoaren informazioa.
- 13.-2015eko aurrekontua eta plantilla organikoa.
- 14.-Alkatearen ebazpenak.
- 15.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTEN ONESPENA.**

2015eko urtarrilaren 9an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez,  
ONARTU DUTE.

2015eko urtarrilaren 13an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

## **2.-JOSE BENITO LIZARDI BEREAU JAUNAK AURKEZTUTAKO IDATZIA.**

Ikusirik Jose Benito Lizardi Bereau jaunak aurkeztutako idatzia 3. poligonoko 71. eta 134. lur zatiak elkartzeko katastroko aldaketa egiteko eskatuz, dagoen bidea kenduz.

Ikusirik Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Aberastasun Zerbitzuko txostena, non bidea 1990ko katastro berria egin zenean sartutako bide publikoa dela.

Kontuan hartuz bidea beti ere zortasun publikoa izanen duela eta ezin dela itxi inoiz.

Kontuan hartuz bidea partikularrek egin zutela eta gastoa euren kontura izanen zela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 3.poligonoko 71. eta 134. lur zatien artean dagoen bidea anulatu aurretik egin zutenei jakinaraztea akordio hau eurek alegazioak egiteko aukera emanez (hamabost lan eguneko epean akordio hau hartu eta biharamunetik kontaktzen hasita).

## **3.-CANDIDO APECECHEA LUCAMBIO MAIZ JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Candido Apecechea Lucambio jaunak, Arrantxa alderdian, 12 bagoen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 1. poligonoko 101. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Candido Apecechea Lucambio jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administraziooko Departamentura bidaltzea.

3.) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

## **4.-JUAN PICABEA DUCAZ JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Juan Picabea Ducaz jaunak, Goiko Irulegi alderdian, pinu insignisen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 6. poligonoko 262. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Juan Picabea Ducaz jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administraziooko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

## **5.-LARRETAKO MUGAKETARI BURUZ.**

Gai hau mahai gainean uzten da arkitektoekin eta afektatuekin bilera egin arte.





## ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
© 948 634 005  
☎ 948 634 192  
arantza.udala@arantza.eu  
www.arantza.eu

### **6.-BIOMASA ERREGAI GISA ERABILTZEN DUTEN INSTALAZIO TERMIKOETAN INBERTSIOAK EGITEN DITUZTEN TOKI ENTITATEENTZAKO DIRU-LAGUNTZEN 2015EKO DEIALDIA.**

Nafarroako Gobernuak Industriaren, Energiaren eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emandako 428E/2014 ebazpenaren bidez, biomasa erregai gisa erabiltzen duten instalazio termikoetan inbertsioak egiten dituzten toki entitateentzako diru-laguntzen 2015eko deialdia onesten du.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

### **7.-SARERA ISURKETARIK EGITEN EZ DUTEN ENERGIA BERRIZTAGARRIAK ETA MIKROSAREAK EZARTZEKO DIRU-LAGUNTZEN 2015EKO DEIALDIA.**

Nafarroako Gobernuak Industriaren, Energiaren eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emandako 428E/2014 ebazpenaren bidez, sarera isurketarik egiten ez duten energia berriztagarriak eta mikrosareak ezartzeko diru-laguntzen 2015eko deialdia onesten du.

Denak jakinaren gainean geratun dira.

### **8.-MENDIKO LANETARAKO DIRU LAGUNTZA DEIALDIA.**

Nafarroako Gobernuak onartu ditu toki entitateek sustatzen dituzten baso jardueretarako laguntzen araubideen oinarri arautzaileak, 2015eko kanpainarako, Nafarroako Landa Garapenerako 2007-2013 Programaren barnean.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Prestatutako lanen proiektua onartu eta diru laguntza eskatzea aipatutako oinarrien arabera.

### **9.-HERRI URRATS:DIRU LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusirik Herri Urratsek aurkeztutako idatzia diru laguntza eskatuz Iparraldeko ikastolen alde.

Kontuan hartuz Bortzirietako Euskara Mankomunitateak aurreikusia duela laguntza ematea 2015. aurrekontuan.

Kontuan izanik Arantzako Udala Bortzirietako Euskara Mankomunitateko kidea dela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Diru laguntzarik ez ematea aipatutako arrazoiarengatik.

### **10.-HASANNA AALIA ASILOA EMATEAREN ALDEKO ADIERAZPENA.**

Ikusirik hainbat talde politikoek aurkeztutako proposamena, Hasanna Aaliari babes politikoa ukatzearen inguruan eta Estatu espainiarra uzteko 15 eguneko epeari buruz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Hasanna Aaliari sostengua eta elkartasuna adieraztea.

2) Espainian dagokion autoritateari eta Barne Ministroari gai honetan parte hartzea: espainiar estatuaren lurraldea uzteko agindua bertan behera utziz eta Hasanana Aliaren asilo eskaera berriro aztertuz.

3) Maroko Gobernua Mendebaldeko Saharan eragiten ari den Giza Eskubideen bortxaketa areagotzen ari denean gure kezka azaltzea. Errepresio egoera honi amaiera ematea eta Saharako preso politiko guztiak aske uztea eskatzen dugu.

4) Mendebaldeko Saharan NBEk adostutako Autodeterminazio Erreferenduma ospatzea eskatzea; hau baita konflikto luze hau lurraldearentzat modu iraunkor, baketsu erta egonkorrean konpontzeko era bakarra.

5) Akordio hau ondoko erakundeetara bidaltzea: Espainiako Errege-etxera, Espainiako Gobernu Buruari, Kanpo Harremanetarako Espainiar Ministroari, Espainiako Barne Ministroari, Nazio Batuen Aurreko Espainiako Misio Iraunkorrari, ACNURren Ordezkaritzari, Europako Parlamentuko Presidenteari, Europar Kontseiluko Presidenteari eta Marokok Espainian duen Enbaxadara.

## **11.-OROIMENAREN ALDEKO HERRIEN KOORDINAKUNDEAREN MOZIOA.**

Ikusirik Oroimenaren aldeko Herrien koordinakundeak igorritako mozioa, Oroimen Historikoari buruzko Legea, Nafarroako Ikurrei buruzko Legea eta 2013ko azaroko Oroimen Historikoari buruzko Foru Legea behin eta berriz urratzen delakoz. Horrela, Nafarroan oraindik frankismoaren gorespina eta apologia egiten delakoz, eta frankismo erregimenaren eta haren erantzuleen zigorgabetasuna gogorarazten digun apologia.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Artzapezpikutzari ondokoa eskatzea:

-Hildakoen Monumentu izeneko kriptan (bertan Mola eta Sanjurjo jeneral kolpisten gorpuzkinak gordetzen dira) galaraz dadin 1936ko altzamendu kolpistari lotutako edozein ospakizun egitea, nahiz erlijiosoa izan, nahiz berte mota batekoa izan.

-Kriptan dauden jeneralen gorpuzkinak leku pribatu batera eramateko.

-Kripta horretan dauden aipamen, grabatu eta altzamendu militarra gogorazten duen oro bertatik ken daitezela.

-Salatutako ekitaldiak egiten jarraitzen den bitartean, galaraz dakiola Gurutzearen Zaldun boluntarioen kofradiari kripta hori erabiltzea.

2) Erakundeetako ordezkariei hauxe eskatzea: gerra eta errepresioaren biktimen eskubidea izanik, hau da, Egia, Justizia eta Ordaina izateko eskubidea bere egin ditzatela.

**Jose Ignacio Madariaga Vergara jauna sartu da bilerara.**

## **12.-BERTIZKO PARTZUERGO TURISTIKOAREN INFORMAZIOA.**

Alkateak azaldu du Bertizko Partzuergo Turistikoa desagiteko eman diren tramiteak. Gaineratu du bide berdea mantentzeko eta horren promozioa eta kudeaketa egiteko, udal batzuek zerbait sortzeko aztertzen ari direla.

## **13.-2015EKO AURREKONTUA ETA PLANTILLA ORGANIKOA.**

13.1.-2015eko aurrekontuaren egitasmoa eta exekuzio oinarriak ikusirik eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 276. artikuluan xedatutakoari jarraituz.





## ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 634 192  
arantza.udala@arantza.eu  
www.arantza.eu

Aho batez ERABAKI DUTE:

- 1) 2015eko aurrekontuaren eta exekuzio oinarrien espedientea hasiera batean onartzea.
- 2) Espedientea jendaurrean hamabortz egunez paratzea, interesatuek aztertu eta bidezko erreklamazioak aurkez ditzaten.

**13.2.-** Arantzako Udaleko 2015eko plantilla organikoa ikusirik eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 236. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aho batez ERABAKI DUTE:

- 1) 2015eko Arantzako Udaleko plantilla organikoa onartzea.
- 2) Espedientea jendaurrean hamabortz egunez paratzea, interesatuek aztertu eta bidezko erreklamazioak aurkez ditzaten.

### **14.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2015eko 2. ebazpenetik 6. arte).

### **15.-ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira izan

Bertzerik gabe, gaueko 20:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Ander Almandoz Indacoechea.

